

BIZKAITARRA
BIZKAIERAZ
71n. ZENBAK
URTEERRILLA
1984

DIRECCION GENERAL DE MEDIOS
COMUNICACION SOCIAL
RIFERICA Vice
Entre... empires el día 13
Enero de 1.984

Martín...



**SALBE-ZUBIA
BILBO URIAN**

BAKEAREN ZAIN

Gure Erri au berak nai ez dauzan zigor bik azpiratuta dauke: lan-ezak eta bake-ezak. Erri gaixual Zigorpetik urten nai, aalegiñak egin, baiña alperrik, dirudianez. Ortik datorkio erriari itxaropena galtzea, geroa illun eta baltz-baltz ikustea, eta azkenez, ekintzari eskua ez eskeintzea.

Baiña, ez, ezin geinke olan jarraitu. Gure burua jaso, eta ekiñaren ekiñez zoritxar oneitatik gure Erria atarateko lain izango gara. Aala or dago, aalegiñari eldu bear.

Lan-ezak, naita estualdi gorrienen sortzalle izan, bizitza laburra daukola esango neunke. Laburrak ez dau esan nai erreza. Estualdi orretatik asko kostata urtengo dogu, baiña guztion gogo onez —eta ortan danok bat gatozala dakust— lan-eza menperatuta geratuko da.

Beste aldetik, gu azpiratuten gaituan bigarren zigorrak —bake-ezak— bai daukola bizitza luze ta biurria! Bai, bizitza luzea ain zuzen, bere zeregiña bizitza moztutea ba'da be. Ilketak eta izkanbillak bizkortutea bake-ezari datorkio, bien bitartean ardurara, kezka ta samiña guztion biotzetan sortueraziz. Itxaropen otza sortzeko giroa.

Euzkadi onek bakea bear dau danen gaiñetik Naiko astindua izan da bertan bake-billatzea, baiña alan eta guztiz be, egunen batean garaille urtengo dau. Erriak geroari uste onez begiratu bear dautso. Zergaitik? Gizaseme ta erakunde asko dabillelako bakearen zain eta zaintzalle. Oneik ez dabe etsiko, nai ta burruka latz eta luze onetan egur asko jaso. Ekin eta ekin egingo dogu. Bake barik ez dogulako etorrerarik, etorrera onik beintzat.

Bakearen alde gatozanon eskariak aintzakotzat artutea bear-bearrezkoa da. Ez da gauza andia eskatuten doguna: errien arteko eztabaidak, sustrai-koak izan eta be, sutizkillu barik konpondu bear litzakezala. Orretarako, alkar-izketak bake-ingurua erreztu dagien, bidea zabaldu bear yake.

O.N.U. berak ba diartu. Erri-Alkarte Nagusi orren lepotik barre ta irri franko egin ditue batek baiño geiagok, aren erabagiak indargeak ikusten diralako. Bost Andien eskuetan dago joko guztia, eta auzi askotan bat ez datozenez, alperrikakoak dirudie beste erri txikien ekiñaldiak.

Oneri ikuspegi batetik, eta nire ustez ez jatorre-netatik, begiratzea litzake. Ba-dira O.N.U.'n, beste

aldetik begiraturuz, gauza txalogarriak eta bakearen alde ondo jokatu daben ekintzak. An mundu guztia-
ren aurrean eztabaidatzen dira errien arteko auziak, zuzenbidea elburutzat artuaz. Ezin ukatu lei zuzenbide-eskariei batzutan entzun-gor egiten dautseela, baiña beste askotan adi-adi entzunak dira. Munduko erri guztiak batera jokatu nai dabela ikustea zer-edo-zergaitik izango da bai. Erri-Alkarte Nagusi orrek askotan porrot-egin dau bere ekintzetan, baiña ezin ukatu lei baita emaitz onak ernerazi dauzala.

Gañera, nire ustez, bakea lortuteko ez dogu beste biderik alkar-izketa baiño. Alkar-izketak aldeberatu barik, bizkortu ta areagotu egin bear litzakez. Izkilluen aldean, berbaldiak, gogorrak eta mingotzak izan eta be, eroagarriagoak izango dira beti.

Gure Erritik kanpora jazoten danak ba-dauko geugaz be zer ikusia. Gure artean ba-dagoz, eta ez gixi, mai-inguruan gure eztabaidak eta oztopoak konpondu litzakezala siñisten dabenak. Indartu daiguzan buru ta biotz oneko gizaseme orren egiñalak. Gure bide estuari ta latzari eragozpenak eta oztopak jaurti barik, zabaldu, leundu, erreztu egin bear dautsogu.

Munduko auzi gordiñak konpontzeko armak nagusi dirala esango dabe batzuk. Bapatean bai, olan dirudi, baiña gerren ondorengoei begiraturuz, armak-eta korapillotsuago laga dabezala auziak ezbaibarik baieztu geinke. Ez da urrutira joan bearrik ori egiztatzeko. Eutsi daiogun ba, bakeurratsei, izkilluak autsi ta orretarako egiten diran gastuak erriak daukoan bear-izanak eta premiñak beteteko erabilliaz. Ba-da or zer egin!

Bakea sendo oiñarrituteko, zuzenbidea izan bear da bere gidari ta elburu. Zuzenbidea zertan datzan alkar-izketetak argitu leike. Azken-azkenean iztilluetatik sortutako gerrak be, bakea egitea nai ba'da, alkar-izketatik asi ta amaitu egin bearko dira. Ez da beste biderik, kanposantuko bakean geure buruak zapalduta ikusi nai ez ba'doguz.

Geien baten, asmo oneik ezin leitekez jaramonik egin бага baztertu. Goizago edo beranduago, bakezaleak irabaziko dabe. Kain ez da beti garaitzalle urtengo.

LEGE-BAZKUNA

(Parlamentua)

ERAKUNDE BARRIA

Euskaldunak aspaldiko urteetan lege-bazkuna edo parlamentua daukagu eta olako erakundeak urte batzutan irauten dabenean, errez sartzen jaku beti izan dirala uste izateko burubidea.

Baiña parlamentua edo lege-bazkuna oraintsuko erakundea dogu euskaldunok.

ZELAKOA DAN

Aztertu dagigun apur bat erakunde errigin barri au.

Auteskunde orokorrak, euskaldun bakoitzak autarki bat dauala, aukeratua da, eta orretarako bide lez alderdi errigiñak, politikoak, artzen dirala. Euskaldunen kondairan erriak eta eskualdeak izan dira errigintzarako bide ez auteskinde orokorra ta alderdi pilitikuak.

Lege-bazkun onek, Euzkadi'ren ikuspegitik begiratuta, arazo mingarri batzuk daroaz barruan: Euskal-parlamentuaren izena artuta euki arren, ez da izen orrek esan gura dauan gauzea, España'ren menpean diran iru «probintzi»ren alkartasun legezkoa baiño. Euskal-parlamentuaren izena be ezin artu daike, Naparroa ta Iparraldeko eskualdeak barru ez dirala.

Alderdi politikuak bide dirala, errietan oiñarritzen da, baiña ez erri osoetan antxiñako gure erri-agintaritzza oiñarritzen zan lez.

ZERTARAKO BEAR DA?

Lege-Bazkuna edo «parlamentua» gure kondairan oiñarritzen ez ba'da eta izenez eta izanez Euskalerrri osoaren ordezkari ezin izan ba'da, zergaitik artu dogu euskaldunok bide ori?

Orretarako zio bat baiño ez dot aurkitzen: Beste erri batzuan antzeko erri-agintaritzza eukitea. Eta zio ori ez da ain sendoa, zori txarrez.

Erregea eskatu eban antxiñako aldi baten Israel'ek eta Erregea emon jakon, «parlamentua» ta «Lendakaria» eskatu dauz gure erriak eta «parlamentua» ta «Lendakaria» emon jakoz.

BATZAR NAGUSIAK ZER

Baiña «parlamentu» orregaz batera emen daukagu beste erakunde bat: Eskualdeetako Batzar Nagusiak. Eta au bai ba-dala gure erri-agintaritzaren oiñarrria eta kondairadun bidea. Euskalerrriko eskualde guztiak, iparraldean eta egoaldean izan dabez olakoa batzar nagusiak, Gernika'n, Gipuzkoa'ko erriren baten, Iruñan, Arriaga'n, Uztaritzen eta abar, batzen ziranak.

Orreik be bizi dira eta Kondairadun Lurraldean Legeak ba-dauko orretan zer-esanik, orreik bai biztu eta indartu bear gendukezala, Aldundiak buru dirala, Eskalerrri osoan, iparraldean eta egoaldean, eta euskal-batasuna ortik lortu daiteke, zazpi edo sei batzar nagusiak euren artean alkarragazko lana egiten dabela, euren naimenez alkartuta.

LENDAKARIA

Lendakaria be, lege-bazkunaren bidez sortua izanik, barria dogu Euskalerrrian, azkenengo berrogei ta amar urteetan asmaurikoa.

Euskal-batasunaren ezaugarri lez ondo legoke erribideko agintari bakar ori, baiña orretarako Euskalerrri osoaren ezaugarri izan bear leuke, Naparroa ta Iparraldea barru dirala eta Eskualde bakoitzaren barruan izan bear daben Bizkai'ko Jaunaren antzekoen buru izateko: Jaunen Jaun eta olako zerbait. Orrelan, eskualdeetako jaunak, batez be Bizkai'koak, jauntza ori erregeen eskuetara joateaz egin daben erri-pekatur garbitzeko bide izan leiteke.

BATASUNA

Batasuna bear dogu, errigintzan naiz izkuntza-arloan, baiña lenengo nortasuna errietako udal-batzetan, eskualdeko Batzarretan eta gero Euskalerrri Osoan, betik gorako batasuna, ez beste erri batzutan ezarri dan goitik beerakoa.

IZAN ETA EDIN

I, *izan* aditz ori, aberatsa intzan leen-aldietan. Aberatsa.

—Lokarri-aditza. Abididez: Peru ona *da*

—Laguntzaillea. Adibidez: Peru etorri *da*.

—Leentxo aitatu dogun «estar» aditzaren esangurea be euk aditzera emoten euan. Eta beste aberastasan batzuk eukazan.

Baiña urteak joan eta urteak etorri, apur bat (edo apur baiño geiago) agortu eta antzutu egin azala esan bear daustat.

Leen-leen era eta aldi guztietan erabiliko induen. Aspaldion, baiña ire barrutia medartuz eta murriztuz joan dok. Estutu eta txikitu egin jak. Eure arloa zaindu eta gorde bape ez dok egin-eta.

Non ete dozak aspaldi-aspaldidaniko *naizan, biz, garean, bira* adizkire jator areek? Non?

Gaur-gaur aginte-eran jokatu be ez augu egiten. Subjuntiboan be ez. Eta aal-aran be ez. Eure barrutiaren zati aundi bat galdu egin dok. Era orreetan euk be beste laguntzaille baten bearra daukak. Koko-ori, alper utsa izan az eure etxaldea jagoteko. Eu laguntzaille izan, eta euk be beste laguntzaille bat bear. Ori be badok ganorea!

—Izan *nadin* 'sea yo).

—Izan *adi* (sé tú).

—Izan *bedi* (sea él).

—Izan *gaitezán* (seamos nosotros).

—Izan *zaiteze* (sed vosotros).

—Izan *beiz* (sean ellos).

Laguntzaille ori **edin* aditza dok, aurreko aidibi-deetan ikus daitekenez. (Esan, **edin* esaten joagu, baiña aditz orren infinitiboa zein dan iñork be etxakik, eta izartxo bat ezarten jakok orrexegaitik).

**Edin* (edo dana dalako) laguntzaille ori, laguntzaille utsa dok. Eta lagundu besterik etxok egiten.

Laguntzaillearen eginkizuna, izan be, orixe dok-eta.

Esapidearen zer-esana zeaztu, baiña, ori etzok laguntzailleak egiten. Aditz-izenaren egitekoa dok ori. Eta au edozein izkuntzatan.

Zeruan bedi esanda, esate baterako (gaur onango esaldiak irakurten joaguz), nik etxoak ezebe esaten, *bedi* orrek berorrek bakarrik etxok ezebe esan gura-ta.

Gaztelaniaz «yo había...» (edo onango beste zer-bait) esango bañok, ezer esango ete ñeukek? Ezebez! Baiña «yo había» (llegado), (traído), (liberado) eta abar idatzi ezker, esakunaren zentzuna zeaztuta llegokek, eta ori aditz-izenak egin jok.

Izan eta **edin* aditzoi gagokiezala be, auxe berau jazoten dek. **Edin* laguntzaille utsa danez, euskeraz taiuz itz egiteko edo idazteko, berau bakarrik ezin lleiteke erabili, Etxok ezebe esan gura-eta. (*Etorri bedi, (ibilli) bedi, (izan) bedi*, eta abar, idatzi ezker, oster, esapidearen adierazogurea argi jagok. Bestelan, ez.

Olerkariak eta, bai, onango esaldiak erabilten joez. Baiña, parkagarri dozak. Liturgian be irakurten joaguz. (Erruki *dakigula* Jainko guztiz altsua...) Esaldiaren bizitasuna ager daiten onartu lleitekezak, bearbada. Baiña itz-lauz idazten danean, onango esapideak etxagozak ondo.

—Eta i nor az, ba, orrelango irakatsiak jaun aundiei emoteko?, itanduko dok eure kolkorako.

—Ni iñor be ez! Baiña Azkue nonor izan zala uste joat. Entzuiok, ba, berari:

«(Que él sea) no es» *bedi*, sino *izan bedi*, así como «que venga» es *etor bedi*, y que «él llegue» *hel bedi*. Este *bedi* no es flexión de *izan*, sino de *edin*» (Morfología, 659 orr.).

PUXANA'k

GRANADA

Majiña bat ixillu atera dau azkeneko egunotan Ameriketako ugarte txiki orren izenak. Ez berak ezer daulako, Laterri Alkartuak bertan indarrez sartu diralako baizik.

Laterri txiki bat da Grenada'ko ugarte. 344 kilometro laukoi besterik ez dauz: gutxi gora bera, gure Durango-aldeak dauzanak. 100'en bat milla gizakume bizi dira an, geinak beltzak, eta bere aberastasun guztia nekazaritza dabe, lur beroetako nekazaritza.

Ai baña, gudaketarako garrantzi aundikoa da Grenada txikia!, izan ere Grenada eta bere inguruko beste ugarte aiek danak Ameriketako gerrian bait dagoz!

Kaleetan agerkunde edo manifeztazio batzuk izan dira, Laterri Alkartuen aurka, gure Euskalerrian azken aldi ontan; Euzkadi'ko laterri komunistak eratuak danak; EE'k, HB'k, LKI'k, EMK'k, eraturako agerpenak, buru bat baiño geiagoko piztia bait da Euzkadi'n Alderdi Komunista.

Arritzekoa da gertakizun batek berak —oraingo ontan Laterri bategan beste Laterri bateko gudaroz-

tea sartzeak—, jende ber-beraren buruetan sortzen dauzan aburuen ezberdintasuna!

Gu, beti, besteren etxean indarrez sartzearen etsaiak gera; ez ordea, orain Laterri Alkartuen aurka oiuka dabilzan oiek. ¿Errusiarrek Afganistan'en egin daben sarrera zipotzaren aurka karraxirik egiten ez dabelako? Ez orregaitik bakarrik, ez. Orain dala berroirenbat urte Laterri Alkartuak Españi'n indarrez sartzen ez ziralako ikusirik, zearo asarreturik aurkitzen ziralako. Orain, Laterri Alkartuak besteren etxean sartu diralako asarretu dira; orduan..., ¡sartzen ez ziralako!

Indarrezko sarrera oien etsai gerala gu beti, esan dot lentxeago. Baiñan, ¿ez al giñan gu ere orduan Laterri Alkartuek eta beren lagunek Españi'n indarrez sartzearen aldeko?

—Bai baiño, orduan Franko'k agintzen zuan Españi'n, eta Franko'ren agintaritza ez zan legezkoa, indarrez eta tiroka kendu bait zion agintaritza, erriak aukeratuako legezko agintaritzari, Errepublikari! Orregaitik Orduan, Espa-

ñi'ko Jaurlaritza ez zan Legezko Jaurlaritza; ez zan Erriak aukeratu!

—Ezta, orain, Granadako ere!

—Orduango agintaritza, militarrek indarrez lapurtua zan!


—Baita gaurko Grenada'koa ere! Indarrez artu zuten an Jaurlaritza komunistek Bishop jauna buruzagi zutela, eta indarrez artu dabe gaur, Bishop diktadorea indarrez erailda gaurko militar komunistek.

Beraz, indarrez geratu ziran falanjistak botatzeko, indarrez Españi'n sartzea zillegi ba'yaken orduan, zillegi yake, gaur ere, Grenada'n sartzea an indarrez goora igo diran komunistak botatzeko; eta an, Grenada'n eta leenago Españi'n, erriari agintaritza bir-emateko. Ala ta guztiz, gu, lege orokor lez, besteren etxean ez sartzearen aldeko izango gera beti, indarkeriari zirrikutxo bat irikitzeak, naiz zirriku ori txikia eta argi-argi legezkoa izan, ondorio izugarriak ekarri bait daikez. Otsoari eskua ematen ba'dautsazu besoa ere jango dautsu, ¡eta baita soin osoa ere berealaxe!

LATIEGI'tar BIXENTE

KARLISTEN BIGARREN GUDEA

AMOREBIETAKO ITUNBENA (IX)



Etxe onetan, izenpetu eban Serrano'k Karlatarren II gudearen azkeneko bake txarra.

Edesti onetaz orain esaten goazana, lenengo idaz lanean irakurleai itaundu neutsenean ia gura eben gai au nik erabiltea, idatzi neban.

Atzalburu auxe birregin edo barriro egingo dogu zertzelada batzuk geiagoteko ta Amorebieta'ko Ytunbena berau argiago agertu daiten irakurlientzat.

Serrano Gudalburu (general) etorri zan Zornotza'ra Ytunben ospetsu au egitera. Ez zan Bergara'ko langoa, berrogei urte lenago egin ebena Maroto ta Espatero'ren besarkada zintzotasun bakoa. Emen Zornotza, Amorebieta'n, eskuartu ta izenpetu ebena egin eta zintzotasunez ziarduen.

Serrano jauna etzunda oean egoala, beragaz gizon andiki batzuk berbaldia eukitera etozala iragarri eutsoen. Jardun-aldi berbaldi au ospatu zan alde batetik Duke jauna ta Gudalburu Lopez Dominguez, Laterri Nagusi Buru zireala, ta besteik On Fausto de Urquizu, On Gaspar de Belaustegi, On Antonio Manuel de Arginzoniz eta On Jose Niceto de Urquizu.

Ez da esaten 23 Orrilla'ren gabeko ze orduan asi ebenik jardun-aldia, baiña bai diño kondaira-istoriak goizeko egunsentiaren 3'retan amaitu ebela. 24'ko amarretan batu ziran barriro, ta Itunbena'ren zirriborro eta Duke jaunaren eskutiza gerturik eukazan Lopez Dominguez'ek. Bearrezkoa ez zala-ta Guda-Aldundegiari ez eutsoen ezarri karlatar (karlista) izenik. Belaustegioitia'ren etxean (ikusi etxe onen argazki-irudia) izenpetu ziran ondorengo eskubideak: 1.º Izkiluz Bizkaia'n jaso ziranai, oneik itxi ta neke guztien parkamena. 2n. Zerga kontuak Jauneriari dagokiozanak, Gernika'ko Batzarrak erabagiko dabez. 3n. Esan dogunez, Izkilua itxi ta emoten

dabezan gudariak parkatuak izango dira, baita euren buruzagi, ofizial, aguntariak be. 4n. Erabide onein ondorenak, izkilluak eskuratuak izan diran unetik balioko ezarrita lez artuko dira. 5n. Guda Aldundegi'ko jaunak eta beste ordezkioak euren alegiñez aldenduko dabez Probintzi'ko erri-bakearren arriskuak, esaterako, nastaldi ta matxinadak.

Amorebieta'ko Ytunbena onetan Erriaganako maitasuna ta ardurea ikusten dogu argiro.

Ez diño, ba, politika arazoetan ta artu-emotan norberekeria, griña eta taldeen onaurkiak eztirala baiño.

Itunben ori, orratio, eredu da orain-arte Bizkaia'n egin izan dan agintarien jokabidean.

Orain, oster, erri-aginte-demokrazian egon arren Bizkaia'ko agintariak zintzotasun, zindotasun ta euren erri-arduraeza peitu (falta) yakela dirudi. Euzkadi'ko Jaurlaritza'n, Bizkaitar buruzagiek eztaukie euren erriaren maitasun ta jatortasunik. Bizkaia-erri aldea baiño lenago dira eurentzato beste eskualdetako onurak.

Euren ustez ori da aurrerapena.

Egiz eta benetan ori ezta atzerabide kokolokeri bat baiño. Griña orreri istorian esaten jako Erdira-naikeri, jakobinismoa.

Amorebieta'n gure Guda Aldundegia'k eta onen ordezkariak Gudalburu Serrano'ri eskatu eutsoen, batez be, Bizkaia-Lurraldeak Gernika'n batuta onek uste ebana egoki, erabagiko zala.

Lege gai au, nire ustez garrantzi ta arduraz-koenari liberalak eraso, aurka egin eutsoen, eta Duke de la Torre'k txarto ziarduala iñoen, bere izenpeaz onartu ebanean. Politikari griñaz itxuturik egozan, eta Gernika'ko batzarretara deia Foruen lege arauz ez yakoen atsegin. Foru-zala ez ziran liberalak.

Bilbo'n egin eban zarrazta biotz-ikara Amorebieta'ko Itunbenak ezin esan aiñako izan zan.

Minduten ziran liberalak eurak jakin barik Duke de la Torre'k karlistekin alkar artu ebalako.

Oroigarri izango jaku beti orduko Bizkaia-Guda Aldundegiak bizkaitar gudariak egindako goraketa, gorantzak: «Bizkaitar gudari barri gogozko borondatezkooi, eskerrik asko. Güeñes'en, Karrantza'n, Zubiete', Arrigorriaga'n, Mañaria'n, Oñate'n, erri onein guda zelaietan, zeuon kemen, adore, indar zentzutasun, baretasuna-gaitik, mundu zabaleko gudari onenatarikoak zariela agertu, erakutsi dozue».

LETONA'k

BONBAKETA GALGARRIA

Komunikabideen indarra azken bakoa da.

Eurak darabille mundu guztia eurak nai daben bideetatik. Izparringi, aldizkari, teleikuskin, irraiti, idazti da abarrek dabe indarra bigun bigun eta igarri бага, euren naia munduari esarteko.

Onerako bidea artzen ba'dabe ontasuna, zuzentasuna ta maitasuna egiz indartuko dira gizadian; baña, ostera, txarrerako bidea artzen ba dabe, gizakien buru biotzak laster dira kutsutuak eta galduak.

Komunika bideak, ga ta egun, bondaketa itsugarria darabille ta geienetan, zori txarrez gizonen galgarriztat, batez be izpar txarrek zoratuten ditue gizonen buru biotzak.

Gizona izpar aundi ta garratzen billa dabia eta egarri ori asetutearren, izpar laria, zeiniek baño zeiniek izpar garratzen aurkitu ta emon leiaketa zentzun bakoan dabiz.

Gizon bakoitzak bere griñak ditu, barruan: An dagoz baita be, txarrerako griña maltzurak eta griña txar orrek asetutearren komunika-bideak geien baten, izpar gogor eta galgarriok erabilten ditue eta zeaztasun guztiakaz erabilli bere.

Izpar garratz orreik jakiteko zalekeri ikaragarria sartu da gaurkoan gure erri larritu onetan. Esate baterrako: amak semetxoa il dauala; aitak alabea zikindu dauala; urlia abadea andra ezkondu bategaz dabillega, ainbat eta ainbat gizon il dituela: au ori ta bestea urkatu dirala eta abar eta abar.

Bai ta lizunkeriarri bultza egiten dautsoen izpar ziliñez datoz izpar asko. Bide ori artu dabe ainbat komunikabidek gizonen egarria asetuteko, ta orrelakoren bat ez dakarren izparra ta idatzia alde batera itxiten da.

Benetako ao-gozotasuna galdu dogula esan leiteke.

Eriotzak, zikin izparrak, lapurketak irakurri ta irakurri, entzun ta entzun komunikabideak gure barruak onetik aldendu ta txarre-ra bultzatuten ditue egunero.

Izpar baltz edo zikin bat entzun edo irakurten ez dogun egunean zer edo zer falta jakula uste dogu.

Jokera txar orrek batez bere gazteen biotzak ustelduten ditue arin baño ariñago.

Txarkeri guztiori askatasunaren izenean egiten da.

Askatasuna ta askatasunkeria ez dira gauza bat, ez dira bardiñak.

Benetako askatasunak ba ditu bere mugak, zer esan bere ez. Gizon batentzat edo gizadiaren kalterako diran izparrak ez dauke askatasunik, bestela gogorkeria litzateke ta.

Ainbeste ta ainbeste gogorkeri ta ilte dabilgun erri onetan batzuk eta beste batzuek narberaren gogorkeria ontzar artzen oitu gara tamaldez. Komunikabideen eguneroko erretolikeagaz dana entzuten ta ontzat artzen oitu gaitue: gogorkarri, ta zikinkerian patxadan biziten.

Izpar onak eta jakingarriak idazkietan izki txikiakaz bastertxo baten ininten dira edo ezentatu bere ez dira egiten. Ori ez da gauza egokia gizartearen ezker aone-rako.

Komunika-bideak nai dabena lortzen dabe orregaitik aldabenez, izpar onak eta goragarriak geien bat emon bear ditue, txarrek ixilduaz edo ezetziagaz baintzat.

Batez bere orain nagusitu dan gogorkeria ezetsiagaz. Komunikabiden an dabizanak eta guztiok, betez be esaerak diñona, egunero gogoratu bear dogu ezikatatz on baterako: GOGORKERIZ BIZI DAN ERRIA, BETI IZANGO ERRUKARRIA.

ON KAUDIOK

EDAN ETA EDAN

Gure erri au edaleen artean aundienetarikoa dala diñue. Ain zuzen be geiegi edaten da erri bedeinkatu onetan.

Aurrez aurre aurkitzen doguz erri guztietan ardandegiak.

Edate-etxeak euren onurak ditue ta beste batzuetan euren akatsak. Geienetan erri apalaren batzar-lekuak dira. Gizona lagonkoa da ta alkar-izketarako egiña. Naikoa korapillo ditu gizonak bere barruan eta arazo korapillook batak besteari, esanaz asko bigunduten dira.

Ardandegian, txurrutada bategaz bere barrua bizkortuaz zabal zabal ta bildurbage zintzotasun miragarriagaz barruan daukan dana besteari esaten dautso eta orrela bere barrua ustelduko eban kezka ta korapilloak urtuten jakoz. Edandegian bakotzak dituan arazo-problema besteen laguntasunagaz zirt eda zart egiten dabe.

Bertan gizarte bizia landuten dau, anaitasuna aurkitzen dau ta lan barik dagonean bere ingurukoan laguntzagaz lana aurkitu bere bai.

Antxe antzuten dira bakegarri diran abesti ta zantzo ederrak antxe kaltegarri giran samintasunak ustuten dauz.

Erri guztietan ditugula ardandegi asko eta baleiteke geiago Bizkaiko uri burua dan Bilbon: ezaguna

dogu Goienkale Somera, bertan ia ia aterik geienatan agiri dira antxiña antxiñetatik ardandegiak, orregaitik batoren batek kale orreri arda edaleen ARDO ELIZ BARRUTIA DEITU EUTSON.

Zeinek ardandegi ohea euki txapelketan lez dabiz bertakoak. Neuri bere batek bein bere jantokian ipinteko bertsotxo bat eskatu eusran.

Emen nik egin neutson bertsotxo:
 ETORRI JAN TA EDAN
 EGON BEAR DAN LEZ
 GERO JOAN BAKEAN
 BARRUA POZ POZEZ

Kale orretatik egin ibilalditxo bat eta, ainbat edandegi ta jantokietatik urtendako milla janariren usain goxoak zure zurra biztuko dabe, ain atsegingarri ez dan ardao usaiñagaz batera.

Milla moskorrek agurtuko zaitue, batzuk alai ta apalak, beste batzuk ostera zital ta izketa txarrekoak.

Ona emen, euretariko bat eldu zan niregana erdi jausi ta erdi iagika ta asarre esan eustan: Malvinas'eko guda zeure erruz eginda, ata nik: Baleiteke Malvinas'eko gudaren errundun ni izatea, baña badakit sure Malvinoaren errundun ez nazala.

Edandegiak guztiz kaltegarriak ez dira, baiña neurritz edanezkero.

BETI POZIK

*Ez, ez etorri beti negarrez
 ez, ez ibili tamalez
 ba daukagu ba zergaz alaitu
 bizi gaitezaz poz pozez.*

*Ba dira ortik neska liraiñak
 garbitasunez beteak
 eurak dagozan alde guztitan
 lere, usaiñez basterrak.*

*Gizon mardulak arpegi tximur
 lanaren puruz zartuak
 baña ondrauak, biotz zintzoko
 gaztediren ereduak.*

*Or doguz ume erruge txikik
 aingerutxuen usaiñez
 euren begiak zeru izpillu
 beti argi atsegiñez.*

*Morrozko gogor indar beteak
 enda gerbiren semeak
 euren arpegin agiri dira
 zintzotasunez beteak.*

*Gure andreak andre zabalak
 irribarretsu, bigunak
 sagar umauren antzeko dira
 usain eztitsuz beteak.*

*Baso lerderak orriz jantziak
 txorin abiaz beteak
 gerizpe eder uda beroan
 bidaztien atsedanak.*

*gure ointxoak bertan sarturik
 udan bete atsegiñaz.*

*Gure munduan ekaitzak doguz
 gure ingurun orruka
 baña gu beti olion antza
 beti urtenik goraka.*

*Zelai baratzak lorez jantziak
 inguru dana usaiñez
 beteten dabe zoriz guztiro
 gure sudurmatsegiñez.*

*Baña batez be goi alden dogu
 Jaungoiko on maitallea
 Gure Aita da betiraunetik
 zori guztin egillea.*


*Ez, ez tamaldu, ez, ez kikildu
 alaitu beti zintzoro
 guztion arte alaitu erri
 zeruetan alai gero.*

*Errekatxoak pil pil uragaz
 soñu gozatsu egiñak*

*Euki bear da olion antza
 bera da beti gain gaiñen
 ekaitz gogorak murgildu bago
 bera da beti garaille.*

GALLASTEGI'K

ITXASOA



Galilea'ko itxasoa: Jesus'en Arraintzalekua.

EDERTASUNA

Lurraren irutatik bi atal edo zati, danok dakigunez, urak artzen ditu.

Urak gaiñera, mugimendua be beragaz artzen dau —mareagora, mareabeera eta alde batetik bestera.

Itxas zabala ta andia «Oceano» izenekoa da.

—Itxaskolko, urkolko, ondartzeta eta abar izentatuak dira itxas ertzeko edo legor ondoko tokiak.

Leenengoz itxasorantz urreratu ezkeror arto-saille neurribakoa dala asmatzen da.

Ur-gatza, urdin-kolore antzekoa da egun argitsu baten ikusten ba'dogu, orlegi illunez jantzirik bezela, zerua edoiz estalduta dagoenean.

Itxas zabaletik ondartzara etorten dira olatuak, eta zarataka ertzeko atxaren aurka jo egiten dabe.

Pizkaka, pizkaka (apurka, apurka) zatitu egiten ditu, zulotu eta zuloz beterik ikusten da itxasoko ertza.

Ondartzetan launduta dago azpia.

UDATIARRAK

Udatiarrak alderdi onetan egiten dabez euren egotaldiak udaroetan batez be.

Itxasoko ura geienetan eta aldi onetan zabaltzen da. Bare-bare badago... baretasun-aldietan jente asko ikusten da ondartzetan: eguzkia artzen, uger egiten edo olgetan eguraldi ona izan ezkeror.

ARRAINTZA

Arrain kaiak aurkitzen dira itxasertzetan, toki baketsua edo aterpea dagoenean.

Arrantzalle asko ibiltzen dira euren sareakaz arrainketan itxas zabalean.

Itxas-ontzi txikiak ez dira gauza asko aldatzen legorretik, beste batzuk, andiangoak, itxas zabalean eta atzerrietan be ibiltzen dira euren itxas-lanetan, arrain mota bariak arrapatzen.

Aizeen indarrak, olatuek eta itxas gora-berek ekaitzu eta arriskugarri bihurtzen dabe arrantzalean arrainketa eta, lantzean bein, ito egiten dira ur sakonetan. Aize-oialez, erramuz eta motorrez alenduten dira toki batetik bastera edo bihurtzen dira arrain kaietara.

LEGORREKO LANAK

Itxasoa lanik ez dabenak, edo mutil koskorak direnak, lanbazakaz txalupak urez garbitu egiten dabez, edo arrentzalean upeltxoak iturriko urez beteten edo tzetzerako basoan urkulak billatzen edo amoak arrain andien janariz betetzen.

EUSKAL-ITXASOA

Euskal itxasertza, Kantauri aldeko arrantzu-atal bat da.

Itxas-artz onetan gaian artzen diran arrain notak sardiñak eta bokartak dira. Azken aldian sardiña gitxiago eta egaluze (atún) geiago artzen da.

Bokartari bagira, Euskalerriko ontziak caterri osoan erdia, euneko berrogeitamar artzen dabe.

Bisigua, legatza eta txipiroak etab. datoz.

LAN GOGORRA

Gure erriko arrantzaleek zuri sardiña ta besigua saltzen dautsuenak gogo asko barik, lo gitxiago eginda, egunero, eguzki beroagoaren azpian kiskaltzen ia janari barik, tosta-gañean jarririk eta lepoa non ipiñi ez daukiela igaro baar izaten dabez ordu aspergarriak, erramuari tenga ta tenga.

Gabe aldian eta lurmuturren baten ikusten dira itxas-argiak distiraka.

Itxas-gizonak eta itxas-ontziak argi onein laguntasunaz eltzen dira arrain-kaira edo ta errez igartzen dabe non aurkitzen diran, itxasoko izar bezela.

ELKANO

Euskaldun ospetsu batek (Elkanotar Sebastianek) biratu eban mundu osoa VICTORIA izeneko itxas ontzian.

Kantauriko GETARIA arrainkaian ibilli izan zan.

Iru urte bear izan ebazan itxas-ibillaldi edo agerketa au egiteko.

BILBO'tar Martin
(Lamene'tarra)

JOSE MARI AZPIRI, OLESKARI

IRU MAILLA

Oindiño bear lez mugatu barik dagoan arren, guztiok ikusten dogu zerbait bardin ez dana olerkari, oleskari ta bertsolarien artean.

Iru mailla ditugu emen, nik uste: Olerkariak, egiazko olerkariak, goi-goiez dagi egaz; guna ta jantzia oso dotoreak darabiltz alakoak; Bertsolariak beerragotik dagi egaz, errikoiago da, taberna ta plazetan botaten ditu bere bat-bateko bertsoak, poetak baiño txolo beroagoak arturik; Baiña or, bien bitartean, badira beste batzuk ez poeta ez bertsolari agertzen jakuzanak. Oneik niretzat oleskariak dira, poeta millarra eltzen ez diranak —edo eldu nai ez dabenak— baiña bertsolariak baiño txukun eta apaiñago euren bertso-lanak burutzen dabezanak; or ditugu olakoen artean, K. Enbeita, Basarri, Azpiri, Z. Andonegi, ta abar.

GIZONA

Ondarru'n jaioa dogu Azpiri, 1929-1-17'an.

Umetxoan eskolan ebillen oindiño gure anai arteko istillu zoritxarrekoa sortu zanean; bertatik artu eben iraultzalleak erria ta sei illabete osoan ementxe egon ziran frankotarrak, eta aldi ori eskola aundi barik emon eban, orain egurretan eta urrengoan ikasten.

Irakasleak barriz umeai eskola baiño politika, instruziñoa ta olakoak naiago eben erakutsi.

Amairu urte ta erdi eukazala itxasoan asi zen.

«Aldi artan jan-bearra gogorra zan —idazten daust—, eta neure adiñeko mutikoen antzera, Kantauri itxasora urten-bearra izan neban.

Iru urtean ibilli nintzan itxasoan. 1945'ko azaroan itxasora joateari itxi neutson eta legorrean asi nintzan saregille».

Iru urtean egin eutson orretan eta soldauzkara joan-aurretik nere zeregiña ondo ikasi ebaleko, arrastero bikoteko saregille maixu ipiñi eben.

Kadiz'en egin eban gudaritza, baita bertan bizitzaldi guztirako lez gaixotu.

Gudaritza amaitu ondoren, etxeratuta gero be ezin ondo jarri. Kuntzurrunetik ebakuntza egin eutsoen, baiña alan be etzan ondo aurkitzen, eta bizitzari begira asten zanean gauzak illun ikusten, etorkizun barik aurkitzen zala uste eban.

Ez ekian zer euki leikean. «Asi nintzan sendagilleekin —idazten daust—; batak au zala ta besteak bestea zala, depresio gogor batek artu ninduen eta beerakada aundia euki neban, Dana dala, oraindik ementxe nabil, Jainkoari eskerrak.

Egia esan, neure gastetako amesak deuseztuta gelditu jataz. Ainbat gauza egiteko ustea ta... bapezean, egoak moztutako txoriño baten antzera geratu».

Baikor eta gogotsu gara euskaldunak. Eta obe orrela.

Azpiri'tarrak be 1958'an anai arteko baltzu bat sortu eben. Itxas-ontzi bi egin ebezan eta ementxe jarraitzen dau Jose Mari'k, anaiekin batera, milla erateko lanak egiñez bizimodua aurrera ateraten.

BERTSO-ZALETASUNA

Bide onak izanda be irrati, eskola, telebista ta abar, ez daukagu etxe-barruko berotasuna, guraso ta seme-alaben arteko autua lakorik gure izkuntza ederra sakon, egoki ta errez ikasteko.

Auxe gogoratzen dausku Azpiri'k. «Etxe euzkalezale baten sortu nintzan —diñoit berak—. Naiz eta neure denporako aldia guztiz txarra izan euzkerarentzat, gure etxean euzkera zan nagusi eginkizun guztietan. Neure amek eta gurekin bizi zan izeko zar batek, eundaka bertso abesten euskuezan.

Ixil-ixillik, auzokoak ez entzuteko. Eurengandik ikasi nebazan Enbeita, Arrese-Beitia, Bilintx eta ainbat bertsolariren aapaldi ederrak.

Etxean sortu jatan benetako bertso zaletasuna.

Eta azia erein ezker, lur mamor jorian batez be, berez dator landarea.

«Aurrerantzean —diño Azpiri'k—, beti ibiltzen nintzan bertso billa. Aldi artan, galerazota egozan

euzkal liburuak, baiña, andik edo emendik, beti bilatzen nebazan, eta aurkitu, liburu zar eta bertso pa-perak.

Bertsolariak gure auzo-errietara urreratzen asi ziranean, al neban leku guztietara irixten nintzan eurei entzutera; ez egoan neuretzako bertsolariak entzutea aiñako jai-aldirik.

Lagun artean asi nintzan bertso zaletasuna zabalitzen. Ardandegi eta sagardandegietan, maitasunezko bertsoak abesten genduzan; mendira joaten giñanean, bertso aberkoiak izaten abesten genduzanak. Gure lagun-taldean karlista etxeko bost mutil egozan; bertso kantuari esker, guztiak euzkal nortasuna ezagutu eben eta benetak abertzale egin ziran».

Baiña etsaiak be, putreak arkaitz gaiñean lez, zain egozan eta kontuz ibilli bear. Alde onetatik asko sufridutakoa dogu Jose Mari.

BERTSO-IDAZLE

Entzuteak idaztea dakar geienetan.

Azpiri'k barruan eroian bertso giroa, lurra ondo gertaurik. Amazortzi bat urte eukiko ebazan, eta bere lenengo bertso idatziak neskatillei buruz egindakoak izan ziran: ardandegian abesten ebezanen antzekoak, berak be papereratu gura.

Eta itz lauz be idatzi daukun arren, geienbat bertsoz jarduna dogu.

Berak autortzen dau ederto: «Bertso egitea izan da neure zaletasuna. Baiña artikuluak be egin izan dodaz.

Bertsoak bein edo birritan Basarri'ri baildu ta, «La Voz de España» izparringian agertu zituan. «Goiz-Argi» aldizkarian be Txomin Agirre'ri bere eungarren urteurrenean egindakoak agertu ziran.

Aldi batean Ondarru'n ateraten zan «Boga Boga» illerokoan be bai.

«Agur» asterokoan bardin. Egia esan, ez naiz ondo gogoratzen bertso askogaz. Batzuk (Franco denporan) izenpetu barik kanpo erriko norbaiti emon neutsozan. Orrez gaiñera, birritan Bilbo'ko Polizien Sotoan egondakoa naiz, eta bein Basauri'ko espetxean.

Bitarte ortan, etxean eginda neukazan bertso ta gaiñontzeko gauzak, emazteak sutara jaurti eustazan, eta orain ez naiz egindako gauza askogaz gogoratzen».

Zer eta nun idatzi dauan adierazoz, onela darrai: «Idazkiak be iñoiz argitaratu izan deustez. «Zer»-ek, Txomin Agirre'ri buruz; «Deia»-k *Lekeitio ta eusker*a (au joan zan urtean).

Joan zan urteko «Ondarroa 82»-en, Ondarru'ko bertso zaletasunari buruz idazkai polit bat egin neban. Aurtengo «Ondarroa 83»-en, lan bi egin dodaz.

Ondarru'ko Lore Jokoetara be ainbat olerki baildu nebazan.

Joan zan urtean Donosti'ko ipuin sariketera amar orriko lan eder bat bialdu neban gipuzkeraz idatzita. Neuretzat bardin xamar da bertsoak naiz idazkaiak egitea, bizkaieraz naiz gipuzkeraz idaztea...

Ikasketarik ez neban egin, baiña irakasle onak euki dodaz etxean. Iztegi aldetik, Umandi, Lopez-Mendizabal, Aita Palzido Mujika, e.t.a. Aldizkari aldetik, Euzkalerrian atara ziran guztiak lenengoan; gero, bakoitzaren jokabidea ikusi ondoren, galbaia erabili izan neban.

Gari garbi ta egizaleekin geratu nintzan eta besteak betiko utzi. Neure patrikarako txanponak euzkal giroko gauzak erosten xautu dodaz».

San Agustin'ek bere «Autorkuntzetan» baizen lau ta zintzo agertzen jaku Azpiri bera bizitz-goraberak, zaletasun eta euskal lanetan. Nik, ostera, neure aldetik, au gaiñetu ta ezarri bear dautsot guzti oni: igaz Larrea'ko Olerti Egunean saritua izan jakula.

Iru sail daukaz au dala-ta ospatzen dan sariketak: lirika, poema eta bertso-sailla, eta irugarren era onetan Azpiri'k jaso euskun leenengo saria. Amabi lan bialdu ebazan, oso sakon eta zentzunez eiota-koak.

Amar aapaldi ditu «Aiton batekin» deritxonak. Mendian izan da oleskaria, aize ta bake billa joanda. Itzuliaz datorrela, baserri baten aurretik igorotean, aiton bat aurkitzen dau atarian; bien arteko alkar izketa dozu poema au. Bigarren estrofan ona nola ikusten dauan aitona ataurrean:

«Urritx makilla esku artean
Okotz azpian jarrita,
Itzalpe artan bakarrik zegon
Aulki baten exerita.
Bere begiak gora begira
Zeruetan ipiñita.
Gure Jaunari otoitz egiten
ondo zeukan ikasita.
Arriturikan gelditu nintzan
Aiton ura ikusita».

Eta biak bietara mendiko ta baserriko baka ta zoriona abesten dabe; kanean ez da olakorik ezagutzen. Kanean, bada, «Begirapena zer dan azturik / burrukan geure artean. / Sendi bateko semeak eta / ezin bildu mai batean».

Gairik sakin eta gatxenak be, errez eta lau jarten daukuz bere bertso biribilletan. Ezagun dau asko irakurria dana. Gero, jakiña, udabarri goizeko birigarroa baizen kantari. Ezta bear bada olerkari-maillako, ezta bertsolari maillako be; baiña bai bien artekoa. Oleskaria, Euzkalerriari dei, oles dagiona.

AITA ONAINDIA

EUZKADI ZELAN ERATU?

Gu Euskaldunok kokoluak garela askotan ba-di-rudi. Naparra gura dogu gureganatu ta geure artean eukitea, eta Naparra ezta sartuko Jaurlaritza'ra orain dagoan lez eratuta ziur jakin bear dogu. Jaurlaritza'k erdira-naikeri eragozpena dauko.

Arabar'tar Gebara jakintsuari ez jako egiten jaramonik.

Zegaitik ez dogu eratuten Euzkadi izena emon eutsanaren araudi elburuz?...

* * *

Gure illezkor Arana Goiri'tar Sabino'k onantxe Euzkadi eratu gura eban.

1.º—Alakartasuna, Lurralde, bakoitza bere naigura betez bertan sartuta ta egonda.

2.º—Alkartasun ori eratuta onelan: Lurralde bakoitza eskubide ta eginkizun bardiñakin bertan egon daitezala gura daben —arte.

3.ºAlkartasuna'k ez dauzala beartuko gizarte-maillan ta atzerritarren artuemonetan baiño, beste gauza ta egintza guztietan asabeen oituraz aukeramen eta askatasun oso-osoa geratuaz.

Euskaldunak euren izakera, euren oiturak jarraitu ezker, ez dira izan bear iñoiz erdirakoi, baterakoiak, beste lurralde anaien eskubide ta dirurik ezin leikie iruntzi.

Bizkaitar bateren batek arrenkuraz esaten badau: Baiña zelan geuri kenduta dirua egiten dozue ori edo a?

Beste bizkaitar kololo edo txarrago diran saltzailleok esango deuskue: Baiña I antxiñako basati bat az. Ik eztakik politikan gaurkotu bear joguzela. Gubernua, Euzkadi'ren alde danok egiteko?

—E; Txo! kontuz, niri ez egistak esan astakeririk. Oraingo E.A.J.'k egiten jakana bai-dok antxiñekoa; ori dok jakobinismo biribilla; Ori dok Sabino'ren araudi ta elburutik aldentzea.

Oraingo politikea ona badok erditik ateratea izan bear jok, ez erdira-naikeriaz ibiltea.

Ortik jakozak arrokeriak ta errientzat kalte guttiak.

Norbera Jainkoaz, norberaaren erria, norberaren Lurralde, eskualdea Euzkadi baiño lenago dok. Eta Euzkadi ona izan ezker, arei eurai lagundu bear yeutsoek.

Orain Bizkaia'n dana egiten da goikoak nai daben lez Eurok darabille gure dirua, gure izkuntza, gure oiturak.

Gure agintariak ixil-ixillik dagoz. Eun ta amaika millemilloa 83n. urtean batu ei ziran, eta Jaurlaritzan eun eta amar mailloa milloi, zetan eralgi ta erabilli, ta nori ta zenbatemon deutsoen argi ta garbi eran bear da?...

Orrelan egin eskero, Naparra Euzkadiratuko da.

EGILUZE'k

EKIN DANOK

*Zuk diñozu or konpon
nik diñot or konpon
olan jarrai ezker
ezer be ez konpon.*

* * *

*Jaunak egiñak gara
zeruraioateko
lurra konpondu bear
ori lortutelo.*

* * *

*Alpertasuna dala
gure gaitz aundiña
alkar lan egitea
gauzarik onena.*

* * *

*Alkar maitetasuna
oso, indartsua
orrek emoten daula
su, gar eta sua.*

* * *

*Politika-arloan
sozial kontutan
alkarregaz lan egin,
edertasun lurrin.*

* * *

*Gure eliza maitek
bai ta euskal errik
danon lana bear dan
biotz biotzetik*

* * *

*Zenbat alper bizi dan
besteen kontura
zer esan ugarien
da euren ardura.*

* * *

*Topiñak lapikori
diñotso ipur baltz
iñork ez ikusi nai
eurena dan akatz.*

* * *

*Barriketa gutxigaz
ekin danok ekin
danontzat da munduan
naikoa zer egin.*

GALLASTEGIK

IZARTXO

GANONETAN GERTATUTAKO IPUIÑTXOA...)



Izartxo neskatilla bat zan eta bere laguna Katamixar. Orain Katamixar lo dago areztiko enbor zaar batean, negua bait-da. Udazkenean egin zioten agur alkarri, zugaitzak gorri gelditu ziranean, orri ori guztiak oiñetan zituztela, lotsatuta bezala.

Gaur goiko mendi-gailurrak zuri disdiratsu dauda eguzkiaren

argira. Gabon usaira elurra jetxi da lurrera maluta ederretan. Baso Illunean Olentzaro kantari:

Mesias badator
Eguzkiaren sortzetik
ez egin entzungor
sartzen dago atetik.
Bere izar garbia
dizdiraz or dago
argitu du ortzia
or goian gorago.
Badator, badator
Belen'era bidean
ez egin entzungor
biotz-barrean...

Olentzaro7ren oiuiak esnarazi dute Izartxo bere ames zorarrietatik. Katamixarrarekin amesetan, an goiko aritz artean amesetan... Katamixar zeukan eskuetan eta urrak jaten zizkion eskutik... Une berean txori buru-beltxak, sorbalдан zutik, ezpañetatik jaten zizkion ogi-apurrak...

Olentzaro'k esnatu du amets gozo aietatik.

* * *

Ganbaran, leio borobil baten ondoan, du Izartxo'k bere oatzea. Bertatik ikusten ditu izarrak gabeen kiñuka eta illargi zuria parrrez. Leiotik begira dagoala, orra or nun datorren izar berri bat.

Ori ote Belen'era doan izar berria?

Vai, ala izango da, sortaldetik dator-da eta urregorizkoa du margoa.

Zer egin?

—Belen'era joan nai nuke nik ere. Baiña, Erregeekin batera lotatu egiten naiz. Ondoren joango nazaie. Zer dio. Aurtxoari eramango?


Amatxok an, kutxa illunean, baditu intxaur ximurtuak, baita mizpero umatuak ere. Jaiki da oetik Izartxo eta kutxara-bidean, alastatik datorren sagar-usaiñak jo dio sudur-zuloa.

—Auetxek errege-sagar zimalduak!...

Artu ditu dozenatxo bat Jesus'entzako. Oso dira goixo eta gus-tatuko zaizkio.

Aitaren musu-zapi urdin aundiarekin pardeltxo bat egin du.

IPUIÑA



Gorde ditu bertan sagarrak eta kuxtara gerturatuta, estalkia jaso du. Saskitxo batean intxaurreak daude eta kajatxoan mizperoak. Artu ditu eskutaratxo batzuek eta pardelean ipiñi.

An, atearen ondoan, antxen dago aitatzok mendira eramaten duan gorozti-makilla ere. Pardela makilla-muturrean dula, irten du Izartxo'k atzeko atetik mendira. Etxean ez da iñor konturatu. Iñor ez, baiña, Txuri txakurtxo bai konturatu da eta saltako ekin dio bere nagusi txikiaren ondoren.

—Ez, Txiki. Zu etxean gelditu, gure amatxori lagundu bear diozu.

—Ez, Izartxo, nik ez zaitut utziko. Zurea naiz eta zurekin joan nai dut.

—Emen geldituko zera.

—Ez, orixe.

—Esan dizut ezetz.

—Nik zurekin joan nai dut.

—Ez zera etorriko.

—Bai, joango naiz.

—Zurekin alperrik da.

Salto ta brinko, buztanari eragiñez, aurrera joateko prest dago Txuri.

Ez du nai etxean gelditu. Txuri barugogorra dala Izartxo'k ondotoxo daki eta berekin joaten utziko dio. Pozik, alaz ere, maite bait du Izartxo'k bere ttottoa. Ez luke ezergaitik galdu nai. Jostallu poli-

tago eta maitagarriagorik nun topa?

—Ator, Txuri. Pozik eramangi zaitut.

—Eskerrik asko! Eskerrik asko! Eskerrik asko!!!

Asi da ugaletik tiraka tximista baiño bizkorrago. Zeiñek gelditu arazi?

Basoan Katamixar lo dago Udaberrirarte. Goiko zugaitz-adarrrak billutsik daude, sorgiñen beatz luza okerrekin egindako armarma-sarea dirudite. Anka-pean Udazkeneko ostoak, basoaren estalgarri, zurrumurru gozoan...

—txuri, an izarra nun doan!
Txuri'k izarri zaunka. Enbor aundi baten zulotik ontza oska. Izartxo ikaratu da:

—Nor da or?

—Ontza dezu, Izartxo xiuka.

Egia zan Txuri'k esandakoa. An zauden bi begi aundi zabal-zabalik, illargiaren argiz zuri-zuri, elurrazko begi zuri argi-argiak.

Irten dute basotik zabal-gune batera.

—Txuri, an gure izarra. Iges egingo digu.

—Ez, Izartxo, gu gelditzen geraan, bera ere gelditu egiten da. Gu aurrera goazenean, bera ere bai. Lasai ibilli, etxeokandere, bes-tela nekatu egingo zera.


—Zu gabe, Txuri, nik zer egingo ote nuke emen gau-illunean...

Aurreraxeago zarpaildutako txabolatxo agertu da eta bere inguruan umetxo sail bat erdi narrugorri. Gerturatu diranean, barren-dik andratxo bat agertu zaie, aur beltzaran bateri bularre ematen:

—Zer zabiltzate emendik, gau illunean? Krisaillua dakar eskue-tan.

—Jesus jaio-berriarengana joan nai degu eta aren izarren ondoren gatoz.

—Belen aurrerago dezute; baiña arek aiña beargorri badegu guk ere...



—Sagartxoak baditut emen eta pozik emango dizkizut.

Beste gabe atera ditu sagarrak pardeltxotik Izartzo'k:

—Torizu. Ez da gauza asko eta barkatu.

Urbildu dira aurak amarengana eta ekin diote sagar-jateari. Gosea zeukaten alakoa...

* * *

Badoaz aurrera Izartxo eta Txuri. Pardela ariñago eta biotza ere bai alai-kantari.

Bidexigor bat artu dute mendimuiño batean zear. Muiñoaren beste aldetik eskala bat dator, makulua besapean, ibiltzen asmatu eziñik.

Izartzo eskalearekin izketan ari zala, izarra zeruan geldi.

—Neke aundia izango dezu ibiltzen...

—Bai, erren nabil. Belauna daukat eskubikoa perlesiak jota. Tolestu ezin. Gogortua daukat zearo eta egur batekin lagundu bear ibiltzeko. Lizar-egurrakin egin nuen makulu au.

—Eskean erri batetik bestera joateko aldi luzeak bearko dituzu.

—Bai, alaxe da. Orregaitik jeiki naiz illargi-beteakin batera. Bestela ez dit astirik ematen bear ditudan biltzeko ere. Beti gose.

—Baditut emen nerekin intxaurrak eta emango dizkizut.

—Bai nik eskertu ere. Ekatzu zer ori eta milla ta milla esker...

An utzi zuten bide-ertzean eskalea arriakin intxaurrak puskatzen.

* * *

Ekin diote berrero bidean. Aurretik izarra aintzindari. An, urrunean kanpaitxoaren dan-danak:

«Dan, dan, dan
amabiak Belen'go torrian...

Dan, dan, dan,
Jesus aurra jaio da estal-
pian...»

Zaunka Txuri'k kanpai-doiñuari. Izartxo, berriz, urduri kanpaiak entzunda.

—Goazen, Txori. Gure Erregetxo-
xa jaioa da.

Guazen. —Guazen. Guau,
guau!...

Arbolape betean artzai gaztetxoak artzantzantzan.

—Otzik bai, mutilok?

—Jana baiño obeto.

—Ez al dezute ezer jatekorik?

—Esnea jeisteko gaude, gaztaiak egiteko.

—Umatutako mizpero gozo-gozoak baditut emen. Nai?

—Bai, pozik, tripetako garraixiak ixil-arazteko.

Ekin diote besterik gabe mizperojaten. Iziartxo'ri pardela era bat ustuz zaio eta gorde du musu-zapia poltxikoan...

* * *

Bat-batean, izartxo-talde bat agertu zan kantari, disdiratsu eta argiz jantzita:

Aintza Zeruan, Aintza Zeruan
goian goiko Jaunari,
pakea lurrean, pakea lurrean
beeko Gizontxoari!...

Bitartean, an beeran, erreko ondoko leeze-zuloaren gainean, Izarra zintzilik.

Izartxo ta Txuri gelditu dira txunditurik, oiñak lurrera josita lez.

—Eldu ote gera, Txuri, gure elburura?

—Bai, Izartxo. Asto-usaiña dator ki sudurretara. Ikuilluan daude.

Lo sakin batetik esnatuta bezala, asi dira bera bidean, biotza tau-paka lertu bearrean.

—Au zoriona, Txuri. Gure amesak oraintxen beteko dira.

—Bai, etxeoandre. Eta esker-
rrak laguntzen ekarri nauzulako.

* * *

Beerago eta laisterrago doaz. Aizkenean, tximistak artuta agertu dira Belen'go estalpera. Erratz aundiakin lurra garbitzen ibillia da Jose; baiña, ardi-zimaurrearen usaiñik ez da emen galdu oraindik.

Aurra Amaren magalean esnea bularretik edozten. Pozik arrotik tiraka.

Izartxo Maria'ren aurrean auzpeztu da eta Semeari musu eman dio oiñetan. (Txuri'k zaunka buztanari eragiñez). Oial zuri batean gaztaitxoak ikusi ditu eta bat-batean bere pardeltxo gogora zaio. Baiña, utsik atera du. Erakusi dio Amari.

—Zure Semearentzat nekartzen intxaur, mizpero eta sagartxoak bidean eman ditut eta orain zuentzako ezer-ez.

—Zoragarria da zuk egin dezuna.

Aurak, berriz, Amaren titia utzi eta Izartxo'ri maitekor begiratu dio. Amak berrero:

—Izartxo, nere Aurak maiteen ditunak, zure eskutxoak dituzu: maitasunez uztutako esku uts oiek.

...

Pozarren eta kantari biurtu dira etxera, basoari irrintzika eta Izaki guztiati garraixika, pozaren-pozez biotza leertu berrean. Izartxo'k Txuri'ri:

Emendik aurrera nere lagun-urkoaren alde lan egiten saiatuko naiz, ordaiñetan ezer eskatu gabe.

Txuri ez dator bat asmo orrekin:

—Gaurko egunez gauza guztiak daukate ordainkizun bat. Ez du iñok eskurik jasotzen zenbat ordainduko diozun galdetu gabe. Ez du iñok esaten zenbat lan egingo duan; zenbat ordainduko zaion, baizik. Zu alrebes zabilta...

—Bai, Txuri, ori ere ala da. Baiña, guk ikusi degun Aurak ez du galdetu zenbat ordainduko diogun gure aldeko gizakunde eta eriotzagaitik... Alkar maitatzea agindu digu... eta maitasunak ez du ordaiñik eskatzen. Justiziak, bai. Maitasunak, ez. Eta, gu, Txuri, maitasunaren semeak gera...

Deba'n. Ilbeltzak, 6.
1983'an.

ARRINDA'tar ARCES

1 9 8 4

Gure bizitzako atsegin, arantzapez,
ainbat goraberazko igaropenean
egunik egun luzatuz, etorkizuna...
Urtea, ba'doa, ba'doa beren bidez,
barriturik beren itxaropen lurruna
azken ta asierazko izantzapenean
ixuriz izangozko eskari kutuna
larogeita bigarren zorion-ametsez...

Ail, urte onek zer ete dakar zorroan:
zillar, urregorri ala beren aztuna
ekintzatu gaitzean euskel alorrean?
Ez bedi oñazez, ez atsegin utsalez
edota bizi-apaingai merkez etorri,
baizik zintzotasunezko neurri batean
onartzeko bizia. Ta, ortako, Jauna,
bekar osasuna bizitzaren oñarri!

MUNIATEGI'tar SABIN

I L T A I L

Zenbat irain etsaizkok
mindu ginduzan...
ta agoak ixilik,
zuzentasunik ez zan
munduan.

Erririk oberena...
ez da zillegi,
arria baziña lez,
zu, olan, apurtzea,

Gorrotoa sortu dau
gaiztakeriak,
ainbesteko txarkerik
ausiko leukez burdin
arriak.

Zu, euzkotar anaia,
mintzen ta lertzen;
zuzengabekeriak
ausi eutsun biotza
odoltzen.

Geroz, anai biozti,
bide barria
artu zendun barnean
burdiñaz gorituta
larria.

Biziaren sorrerak
ba-dau iturria,
guztion Aita bera,
amodiozko zera,
sorlia.

Aita da danon jaube
ixil giroan,
lapurrei begira,
iltzailleen errukiaz
geroan.

Zure zuzentza naia
maite dau lurrak,
euskaldunen egia
odolez naikotu da,
anaiak.

PAULIN

ESKU-IDAZKIAK

XVIII GORAPEN-ABESTIA

³⁷*Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
zure indarra zenbatu ezin alako aldiz erakutsi dozu-
lako [...]
neugan jarri zenduzan bururapenak.*

X SORTA

¹*[...] zure biotzaren [...].*

²*Ezer ez da jazoten zure naitatik kanpo,*

³*iñok be ez dau ulertzen zure gurarien sakonta-
suna;
izan be; zer da gizona?: zer be ez!
buztin eratu apur bat baiño ez,*

⁴*lokatzea izatera biurtuko dan autsa.
Zelan merezi neike zure miragarrietan eta zure ez-
kutu sakonetan
irakatsia izatea?*

⁵*Ni, autsa ta errautsa izanik,
zetan aalegindu naiteke zeure gurarietan izan ezik?*

⁶*Zer banandu daiket zure erabagiak parean eza-
rri bagarik?
Zelan izan daiket adorerik zeure indarrean izan ezi-
k?
Zelan erabili daikedaz gaiak,*

⁷*Nire barruan txutxu-mutxu egiten ez ba'dozu?
Zer esan daiket, nire ezpanak egiazten dauzana Zeu
ez ba'zara?
Zelan erantzun daiket, oparitzat zeure kemena emo-
ten ez ba'daustazu?*

⁸*Zeu, jainko guztietarik aundiena, agintedun
guztien Erregea,
edozien espirituren Jauna, edozein izakiren jabea.*

⁹*Zeu bagarik ezer be ez da burutzen;
ezer be ez da ezagutu, Zuk berari izentatu bagarik.
Zugandik kanpo ez dago ezer be.*

¹⁰*Zure aurrean iñor be ez da indartsua,
ezek be ez dau balio zure aintzaren aurrean,
zure aal-izatea zure negurritik aruntzago dago.*

¹¹*Nor jagi daiteke aundikoi
zure egintza arrigarrien aurrean?,
nok izango dau zure ausi-eziñari gogor egiteko nai-
keririk?*

¹²*Zer da autsera biurtzen dagoana
zeure indarra zirikatzeke?*

¹³*Zure betetasunari gaiñez eragiteko
egin dozuz gauza guztiak-eta!*

KEREXETA

XIX GORAPEN-ABESTIA

¹⁴ Bedeinkatua Zeu, Jauna,
errukian Jaungoikoa, biotz onez aberatsa,
dana ezaguerazo zeustalako.

¹⁵ Zure miragarriak ez dira isillean geratu bear
ez egunez, ez gabez.

¹⁶ Nire arimeak zeure maitasunaren altzoan
gordeta dagoala somatzen dau.

¹⁷ Orain arte zeure indarrean sendotzen naz [...].

¹⁸ Ezer be ez da egiten Zeuk nai izan bagarik [...]

Zure zorroztasunean ez dago ezbairik,

¹⁹ ez dago zure ezguerari igez egin dagion jazope-
nik.

²⁰ Ni bateratuta nago zure egiaz,
nire ezagutzean, barruan zeure dirdira daroat.

²¹ Zure ontasun eta erruki ugarietan
luzatzen diran miragarri azken-bageak
neuk ezagutzen dodazanez azaltzeko aalegiñak
egingo dodaz.

²² Nire itxaropena zeure parkamenean ezarri
arte

igoten da zure parkamena.

Zeure sutegian sartu nozu,
neure irudia emon daustazu.

²³ Ezin erakarri naike irabazi asko-naiak,
ezkuturako ta aragi-senerako gordeleku be ez naz.

²⁴ Nagusi-talde aaltsuak, samea jasorik,
destaiñaz begiratzen dauz enparaduak,
garaua, ardaoa ta orioa,

²⁵ abereak eta garautegiak ugari daukazalako.
Zuk, ostera, ur-ertzean zugatza lez jarri nozu ni,

²⁶ baruza ugaridun zugatza, adar-zabala;
bizi-frutua daukan zugatza Adan'en semeentzat,
zure zustarretan oparo janaritutakkoa.

²⁷ Zure izatearen trudi diran semeat
ezaguerea emon zeutsen batiko

eta, ezagutze onen negurrira, goratuak izango dira,

²⁸ bata bestea baiño geiago;
orrela, Adan'en semearentzat ugarituko da aren oi-
ñordetza,

²⁹ geroago ta geiago izango da goraguera sako-
nagaitik.

Zure morroiak barru-barruaiño iguintzen dau gızal-
di zuzenbagea,

³⁰ eta setatien egokeran nire biotzak ez dau atse-
giñik artzen;

nire espirituak poz-bitsetan dago zure itunpen eta
egiaz.

³¹ Atsegiñez beterik dago nire izate guztia,

lirioa lez loratan nago;

orrelaxe zabaltzen ondoan.

³² Nire salbamena goian dago:

arroak frutu utsak daukez;

frutu oneik, lora izatea itzi ebenez gero,

utsik egon ziran beti.

³³ Nire biotza bildur-ikarazko urrumedetan got-
beeratu zan;

nire sentipenak urratuak izan ziran.

Antzi egin neban orroeka,

trumoiak trokarteetan oiartzun egiten dauanez.

³⁴ Aren otsa Sheol'eko arrakaletaraiño zabaldu
zan.

Barruraiño nintzan bildur zure auziari bildur neut-
sanean.

³⁵ Aundiai buruz auzia,

[goiko] santu aaltsuai buruz.

³⁶ Zure egintza guztiai buruzko auzia zuzentasu-
na da.

XI SORTA

¹ Bildurraren eragillea [...]

atsekabea azi egiten da [...] gelditu egiten naz

² neure spiritua ausnartzen.

KEREXETA

ANDRA ANKERRA

(Ludiko ipuin zarra)

ANDRA ANKERRA

Juanote mutil sendoa zan, ez eukan iñoren, ez ezeren bildurrik, baiña bai andrakoai emaztegai izateko eskaria egiteko lotsea: Olako eskaria egiteko erabagia artzen ebanean, lotsa gorritan aurkitzen zan.

Egun baten bere buruari onelan berba egin eutson:

—Juanote, bakarrik ez az ondo bizi. Etixerako lagun bat bear dok! Or auzoan bizi dokan andrazko sendo ori litzakek itzat lagun ona. Lotsak alde batera itzi eta egiok eskintza.

Eta bete eban asmoa, auzoko andra orrek baietza be emon eutson, baiña laster agertu jakon eragozpena. Ona emen etxeko aita zarraren berbak:

—Ez, seme, andra orregaz ezkontzarik ez. Irutan ezkondu dok ori eta irugarrena be, zapo-saldea emonda-edo, jatekorik gertatu ezagaitik-edo, laster kendu jok ingurutik. Iri be beste orrenbeste egingo dua orrek. Ez, seme, andra orregaz ezkontzarik ez.

* * *

Egin zan ezkontzaren ospakizuna eta aldi guztian ez zan besterik entzuten, ezkon-aurrean eta ostean, au baiño: Ai gure Juanote! Ez da makala, baiña oraintxe ez luzaroko senar!

Ezkonbarriak etxeratu ziranean, ez zan etxe aretan ezelako zararik entzuten. Arrituta egozan auzokoak. Egun batzuk geroago jakin eben etxe aretan baketsu ta zoriontsu bizi zirala ezkonbarriak.

Zelan izan zan ori? Ona emen ezkutukia argituta.

* * *

Senar-emazte barriak etxeratu ziran egun beratan, Jaunote'k bere emaztearen aurrean artu eban ezpatea, zoro baten antzera begiak gorrituta, eta esan eutson etxeko katuari:

—Katu! Ekarri egistak ura eskuak garbitzeko edo il egingo aut!

Katuak ez eutson urik ekarri eta Juanote'k ezpateaz zati-zati egin eban.

Urrengo egunean txakurrari esan eutson:

—Txakurra! Ekarri egistak ura eskuak garbitzeko edo il egingo aut!

Txakurra be ez eukan olako oiturarik eta ez eutson ekarri eta Juanote'k bardin zatitu eban ezpateaz.

Irugarren egunean kortara joan eta zaldiari esan eutson:

—Zaldia! Ekarri egistak ura eskuak garbitzeko edo il egingo aut!

Zaldiak be ez ekian olako esanik egiten eta ez eutson urik ekarri eta Juanote'k bere ezpateaz zulatu eta ankaz gora bota eban.

Gauza oneik ikusita, emazte-barri ankerra bildur-ikaraz dar-dar egoan eta Juanote'ren begiak ikusteak be bildurra sartzen eutson.

Olako baten ba-diñotso Juanote'k bere emazteari:

Emaztea! Gertatu egistazu jatordua edo il egingo zaitut!

Eta bai laster gertatu be! Ostean zer etorri leitekean argi eta ziur ikusten ebalako. Argi ikusten eban esanak ez egiteak dakarren ondorena eta zeatz beteten ebazan bere senar-barriaren agindu guztiak.

OLAZAR'tar MARTIN'k
(Euskeraz moldatua)

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia